

Turismo gidarientzako dekalogoia

Donostia
San Sebastián

Donostian turismo arduratsu eta jasangarriaren aldeko apustua egiten dugu, eta sektoreko profesionala zaren aldetik, **zugana jotzen dugu laguntza eske**, bisitarien eta herritarren esperientzien kalitateari eusteko. Guztiontzako Donostia jasangarriago eta atseginago baten alde.

1



Talde bakoitzeko gehieneko pertsona-kopurua: 25 pertsona + gida. Kopuru handiagoa izanez gero, taldea banatzea eta laguntza gisa tokiko gidariak edukitzea eskatzen da.

2



Kalean **zarata gehiegi** egon ez dadin, beharrezkoa da banakako audio sistemak erabiltzea. Udal ordenantza bidez debekaturik dago megafonoak eta mikrofonoak erabiltzea edota talde ugaritan ahotsa goratzea.

3



Bide publikoaren okupazioa. Saihestu igarobideak, bidegorriak, espaloi oso estuak, ostalaritzako edota saltokietako sarrerak, etab. Aprobetxatu parkeak, etorbideak eta horretarako egokiak diren lekuak, espazioak, etab.

4



Udan eta puntako orduetan saihestu gainezka dauden kaleak eta eremuak. Jende asko pilatzen den uneetan, bisita alternatiboak egitea gomendatzen da, hiriaren gaineko ikustaldi panoramikoak eginez pilaketa txikiagoko lekuetatik: parkeetatik, behatokitatik...

5



Tokiko erakargarritasuna. Helmuga turistikoaren ondarea eta kultura azpimarratzea; hiria, Gipuzkoa eta Euskal Herria. Herrialdeko historia eta kultura ondo ezagutzea.

6



Ekonomia Zirkularra. Merkataritza txikian kontsumoa sustatzea, tokiko negozio ezberdin eta paregabeen garapena bultzatzea. Kontsumo arduratsu eta jasangarria sustatzea.

7



Presarik gabe. Bisitatzen gaituztenei **astia ematea** beste leku batzuk euren kasa esploratu ditzaten, hala nola museoak eta turismo zerbitzuak.

8



Gastronomia. Tokiko gastronomia jator eta kalitatezkoaren alde egiten duten sukaldaritza-establezimenduak bisitatzea. Pintxo Institutuari eta DSS Turismoari atxikitako establezimenduak benetako eta tokiko zerbitzu onaren adibide ederrak dira.

9



Hizkuntzak. Gidariek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak jakitea gomendatzen da: euskara eta gaztelania, gutxienez.

10



Sostenible y responsable. Jasangarria eta arduratsua. Bisitatzen gaituztenei gogorarazi hiria eta hiriko ondarea zaindu eta ingurumena errespetatu behar dutela (hondakinak birziklatu, garraio publikoan ibili, tokiko merkataritzan erosi, tokiko produktuak kontsumitu, etab.).

Donostia
San Sebastián

sansebastianturismoa.eus